


Ipuin irakurle perfektuaren dekalogoa



Eguzki kolpea

Egilea: Horacio Quiroga

Itzultzailea: J.M. Mendizabal "Bizargorri"

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

- I. Har itzazu aintzat irakurgaien egileak (Horacio Quiroga, idazle, eta J.M. Mendizabal, itzultzaile) Jainkoa bera balira legez. Gero, hil itzazu, idolo aizunak izateagatik. Irakurlea da Jainko bakarra.
- II. Sinets ezazu leitu behar dituzun ipuinak ezin iritsizko gailurrak direla arte mota honetan. Ez ezazu amestu gaina erraz hartuko diezunik. Sinets ezazu, halaber, itzultzaileak, gutxienez, idazleak izkiriartzean eta zuk irakurtzean beste neke hartu duela kontakizunak euskaratzean.
- III. Pentsa ezazu itzultzailea dela irakurlerik onenetako bat, testuaren erraietarainoko bidaia egin behar izaten duelako jatorrizkoa ahalik eta fidelen emango badu. Ez ahaztu, dena dela, artearekin zerikusia duten langintza guztien antzera, itzulpengintza ez dela zientzia zehatz bat. Idazketa ere ez den modu-moduan.
- IV. Esku artean darabilzun ipuin sorta itzuli hau idazleak eta itzultzaileak egin dizuten oparia da. Izan zaitetz esker onekoa haien eskuzabaltasunaren aurrean.
- V. Idazleak ipuin hauen bitartez garaipena lortuko zuen fede itsua zuen. Bihotzeko maite kuttunari bezalaxe on irizten zien. Itzultzailea fede itsu horri eta maitasun sutsu horri traiziorik ez egiten ahalegindu da. Senti itzazu zuk sentipen horiek guztiak diren-direnean.
- VI. Idazleak indar bera eman zien lehenengo lerroei zein azkenei. Itzultzailea neurri berean lehiatu da jatorrizkoa ordaintzen. Ez zaitetz irakurtzen hasi benetan bidaia hori haiek bezain kementsu egin gura ez baduzu.
- VII. Idazleak zehatz eta xehe aukeratu ditu ipuinetan erabiliriko berbak, adierazi gura zuena aditzera emateko berba doiagorik ez zuelako bere hizkuntzan. Itzultzailea jatorrizkoan bezain zehatz eta xehe jarduten ahalegindu da; dena dela, gogoan izan hamaika itzultzaile onek itzulgai beraren hamaika bertsio on ezberdin emango luketela, eta balitekeela haietako batzuk ez denon gustukoak gertatzea, gertatu ere.
- VIII. Ez ezazu, beharrik ezean, egilearen lana edo itzultzailearena adjektiboz hornitu. Alfer-alferrekoak izan ohi dira itsasten dizkiezun itsas guztiz-guztiak. Zure sentipena doien azaltzen duen kalifikazioa topatu beharrean zaude, idazleak eta itzultzaileak idazterakoan egin legetxe, hitz horrexek besterik ez duelako izango halako kolore paregaberik. Alorra, dena dela, topatzea da!
- IX. Idazleak eta itzultzaileak pertsonaiak eskutik eraman dituzte kontakizunaren amaieraraino irmoki. Ez ezazu, beraz, arreta galdu, ez begiratu haiek ikusi ezin dutenari edo batere axolarik ez dienari.

Ez ezazu idazleaz edo itzultzaileaz abusa, ez eskatu eman ezin dutenik: ipuina ez da eleberria, ipuina ez da antzerkia, ipuina ez da poesia. Baina ipuin hauetan hori dena ere topatzeko gauza izan behar duzu.

- X. Idazleak eta itzultzaileak letretan jarri dituzten emozioak, zelan edo halan, berpiztera heltzen bazara, erdietsi beharreko muga lortuta izango duzu.

Eta erregaluko bat:

- XI. Itzultzaileak hainbat eskuren eta begi treberen laguntza izan duen arren, guztiarekin ere, sorta honetan akatsik topatzen baduzu (eta zaude seguru halakorik topatuko duzuna, inor ez dagoelako halakoetatik libre), kontuan izan benetan axola duena dela irakurtzeaz eta irakurriz gozatzea. Eta Quirogak eta Mendizabalek ereti ederrak eskaintzen dizkizute.